

ARAUTEGI AKADEMIKOA

ENPRESEN ADMINISTRAZIOAN ETA ZUZENDARITZAN GRADUA

2020ko Plana



Mondragon
Unibertsitatea

Enpresagintza
Fakultatea

AURKIBIDEA

I. SARRERA	7
POLITIKA OROKORRA	8
OINARRIZKO ARAUTEGIA	10
II. GRADUKO IRAKASKUNTZEN IZENAK, EZAUGARRIAK ETA EGITURA	11
GRADUKO IKASKETEN IZENAK	11
ENPRESEN ADMINISTRAZIO ETA ZUZENDARITZAKO GRADUAREN EGITURA ETA EZAUGARRIAK:	11
IKASKETA PLANA (IRAKASGAIK, SEIHILEKOAK ETA ECTS-AK)	13
ENPRESEN ADMINISTRAZIO ETA ZUZENDARITZAKO GRADUAREN EZAUGARRIAK	14
PLAZA KOPURUA	16
III. IZEN EMATEA, SARBIDEA ETA ONARPENA	16
SARBIDEA GRADUKO IRAKASKUNTZETARA	16
ONARPENA GRADUKO IRAKASKUNTZETAN	16
IKASLE BERRIAK ONARTZEKO IRIZPIDE ESPEZIFIKOA	18
KAMPUS ALDAKETARAKO IRIZPIDEAK	20
IV. MATRIKULA ETA IRAUPENA	21
LEHEN MAILA. MATRIKULA LEHEN ALDIZ:	21
IRAUPEN IRIZPIDEAK	22
ONDORENGO MATRIKULAK:	22
MATRIKULA ALDATZEA ETA DEUSEZTATZEA	22
V. EBALUAZIO SISTEMA	23
EBALUAZIO-PROBEN GRABAKETA	25
VI. EZOHIKO DEIALDIAK	26
IRAILEKO GRADU AMAIERAKO EZOHIKO DEIALDIA BALDINTZAK	26
VII. GRAZIAKO DEIALDIA	27
VIII. INTEGRITATE AKADEMIKORAKO ARAUAK	28
IX. KREDITUEN ONARPENA	29
X. ESPEDIENTE AKADEMIKOA	34
XI. TITULUAREN GEHIGARRI EUROPARRA	36
XII. KALITATEA BERMATZEKO SISTEMA	36
XIII. ESPARRUA ETA KONPETENTZIAK	36
XIV. BEKAK ETA IKASKETARAKO LAGUNTZAK	36
XV. BEKABIDE	36
XVI. ESKOLA ASEGURUA	37
ERANSKINAK	38
I. eranskina. TITULUKO TALDEARI ESKATZEKO INPRIMAKIAK	39

BERRIKUSPENEN HISTORIA

1. Ber. 2021-22 kurtsoan

Parrafo hauek gehitzen da, kontutan hartzeko 2022-23 kurtsoetik Aurrera:

Errekuperaziora joanez gero, gehienez 6 lortu ahal izango da, ikastaroaren bigarren deialdian gainditu den notan islatuta gera dadin. Norbaitek nota igo nahi badu, 6 hori ere lortuko du gehienez. Irizpide murriztaileagoa duten moduluak bere irizpidea aplikatzen jarrai dezakete (adibidez, errekerupazioaren notarik altuena 5 izatea)

Azterketen/proben/jardueren berrikuspena soilik eska daiteke horien emaitzak argitaratu eta hurrengo 2 asteetan.

2. Ber. 2023-24 kurtsoan:

2023-2024 ikasturtetik aurrera aplikatzeko, atal hauek gehitu dira:

Campusez aldatzeko irizpideak eta ebaluazio-proben grabaketa.

3. Ber. 2023-24 kurtsoan:

24-25 ikasturtetik aurrera aplikatzeko, paragrafo hauek sartu dira:

Gehienez ere 6ko nota aplikatuko da bai jardueran, bai moduluaren amaierako notan.

myGADEko ebaluazio-sistemak, jarraia izateaz gain, 360 graduko ebaluazioa ezartzen du. Hala, moduluaren amaierako nota kalkulatzeko, ikasleak egindako autoebaluazioa eta taldekideek haren gainean egiten duten koebaluazioa hartuko dira kontuan. Ikasleak autoebaluaziora eta/edo koebaluaziora bideratutako galdetegiak garaiz eta behar bezala betetzen ez baditu, zero bat izango du alderdi horietan.

AKRONIMOEN ZERRENDA

AKRONIMO A	DESKRIPZIOA
GHEE	Goi mailako Hezkuntzaren Europako Espazioa
HNSN	Hezkuntzaren Nazioarteko Sailkapen Normalizatua
EQF	<i>European Qualifications Framework</i>
MECES	Goi Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparrua
ECTS	<i>European Credit Transfer System</i>
PII	Pertsonal irakasle eta ikertzailea

I. SARRERA

Abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoak (apirilaren 12ko 4/2007 Lege Organikoak aldatu zuen idazketa berria) goi-mailako hezkuntzak, garapen pertsonalean, kulturean, zientifikoan, teknikoan eta ekonomikoan duen garrantzia azpimarratzen du, eta mugikortasunean, titulazioen onarpenean eta bizialdi osoko ikaskuntzan oinarritutako unibertsitate-espazio komun baten printzipioak finkatzen ditu. Legeak apustu garbia egiten du goi-mailako hezkuntza-sistemak Europako goi-mailako hezkuntza-esparruan harmonizatzearen alde, eta bere gain hartzen du, ezagutzaren erronkei eta gizartearen beharrei erantzungo dien kalitatezko prestakuntza emateko beharra.

Bestalde, Euskal Unibertsitate Sistemaren otsailaren 25eko 3/2004 Legeak, ezagutzaren unibertsaltasunetik abiatzen denak, esplizituki nahi du euskal unibertsitate-sistema goi-mailako irakaskuntzaren Europako sisteman txertatzea, profesionalen eta langileen erreferentzia eta mugikortasun esparru bezala. Aldi berean, ikaskuntzaren diseinu berri batean lan egiten da, irakaskuntza presentzialaren eta baita irakaskuntza kurrikularraren ideia gainditzaila gisa.

Unibertsitate ikasketen antolaketa berriak, egitura aldaketa bati ez ezik, irakaskuntza metodologiaren aldaketa bultzatzen du, eta horrek ikaslearen ikaskuntza-prozesuan jartzen du arreta, orain bizitzan zehar zabaltzen den testuinguruan. Helburu hauek lortzeko, titulu baten diseinuan prestakuntza edukien deskribapen hutsa baino elementu gehiago islatu behar dira. Eredu berri horrek, ikasketa plana ulertzen du, unibertsitate irakaskuntza bat ezartzeko proiektu gisa. Titulu bat lortzeko bideratutako ikasketa planek, beraz, helburuen erdigunean, ikasleek kompetentziak eskuratzea izan beharko dute. Hala ere, ez da baztertuko, eskola orduetan eta edukietan oinarritutako ikuspegi tradizionala.

Unibertsitateko ikasketa ofizialen antolamendu berriak (urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua, 861/2010 Errege Dekretuak aldatua), prestakuntza zikloak arautzen dituenak (gradua, masterra, doktoregoa), unibertsitateko graduoko irakaskuntzen esparrua eratzen du.

MONDRAGON UNIBERTSITATEKO graduoko irakaskuntzen arautegi eta gida akademiko honen helburua unibertsitate ikasketa ofizialen lehen zikloari dagozkion unibertsitate ikasketen antolaketa arautzea da; hau da, MONDRAGON UNIBERTSITATEKO graduak.

POLITIKA OROKORRA

MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN ibilbideak eta etorkizunerako ikuspegiak, herri honen beharrei dagokienez, ezagutzaren gizartearen garapenera bideratutako eredua dute oinarri, argi eta garbi; baina, aldi berean, sortutako ezagutza aplikagarria izateko konpromiso saihestezina hartu dute bere gain; ezagutza hau, besteak beste, enpresei eta erakundeei laguntzeko helburua dauka.

Graduko titulazioen garapenak, unibertsitatearen funtsezko misioari erantzun nahi dio; eta beraz, bete behar den eginkizuna honako hau izango da, gazteak prestatzea, gure gizartearen eraldaketan subjektu aktibo izan daitezen. Gradu mailako prestakuntzaren xedea, partehartzaileek, oinarrizko ezagutzak, eta trebetasun zein gaitasun akademiko eta profesional orokorrak edukitzea da. Oinarrizko prestakuntza orokor honetan, hasieratik bilatzen da, ikasketen orientazio praktikoa. Hori dela eta, prestakuntza hau, kontzeptuak ingurune profesionaletan aplikatzeko bideratuta dago. Aldi berean, espezializazio akademikorako ikuspegi bat ere badago, ikasleak, hala nahi izango balu, aurrerago unibertsitate masterra egin ahal izan dezan

MONDRAGON UNIBERTSITATEKO graduko irakaskuntzek, MENDEBERRI ikaskuntza modelo dute eredu. Bertan, konpetentzia espezifikoak eta zeharkakoak, eleaniztasuna, eta balioen garapena lantzen dira. Ardatz hauek, ez dira konpartimentu estankoak, hezkuntza integralaren osagarriak baizik, eta ikaslearengan eragiten dute, pertsona, gizarteko gizaki eta profesional gisa. Hiru zutabe horiekin batera, Informazio eta Komunikazioaren Teknologien erabilera berritzailea nabarmentzen da.

Mendeberri proiektua hainbat urtetan inplementatu ondoren, eta gizartean eta hezkuntzan aldaketak izan ostean, 2014-2015 ikasturtean, Mondragon Unibertsitateak gogoeta eta esplorazio prozesu bat abiarazi zuen, Mendeberri 2025 izenekoa. Prozesu horretan, hurrengo urteetarako hezkuntza ildoak zehaztu ziren, horretarako Design Thinking metodologia erabiliz.

Eredu horretan, Mondragon Unibertsitateko tituludunek lortu beharreko 6 ardatz identifikatzen dira:

- **Munduko hiritarra izatea:** Sustriak ezagutzen ditu, eta, aldi berean, munduko herritarra sentitzen da, beren arazoekin kezkatuz, eta gizarte erantzukizuneko eta elkarrekiko ikaskuntzako jarrera kooperatiboa erakusten du.
- **Identitate eta helburu pertsonalak eskuratzea:** Bere burua ezagutzen du, eta bere burua gainditzeko aukerak ere, ezagutzen ditu. Erronka pertsonalak dauzka eta horiek lortzen saiatzen da aktiboki, gero eta identitate askeagoa eta independenteagoa lortzeko.
- **Ikasle malgua izatea:** Aldaketara eta berrikuntzara irekia, sortzailea, eta ilusioz eta jarrera erresilientearekin hornitua, zalantzazko testuinguru posibleen aurrean.
- **Ikastun aktiboa izatea:** Bere prozesuaren protagonista dena, eta ikasteko estrategiak ezagutzen dituena. Jarrera proaktiboa erakusten du, bizitzan zeharreko ikaskuntzan.
- **Komunikatzailea eta komunikazioa errazten duena izatea:** Hainbat kulturatako pertsonekin komunikatzeko aukera ematen dioten hizkuntzak, teknologiak eta komunikabideak ezagutzea, erronka konplexuak eta askotarikoak ulertzeko eta horiei aurre egiteko.
- **Pertsona kooperatiboa izatea:** Komunitate bateko kide sentitzen da, eta hauen printzipioak eta balioak onartzen ditu. Guztien ongia norberaren ongiaren aurretik jartzen du; eta gizartea eraldatzeko lan egiten du, pertsonen justizia eta duintasunaren mesedetan.

OINARRIZKO ARAUTEGIA

Jarraian, graduko arautegi akademiko hau arautzen duen legeria jasotzen da.

Legeria eta Araudia

-6/2001, LEGE ORGANIKOA, abenduaren 21ekoa, Unibertsitateei buruzkoa.

-4/2007, LEGE ORGANIKOA, apirilaren 12koa, Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoa aldatzen duena.

Unibertsitateko irakaskuntzen antolaketa

- **1393/2007 Errege Dekretua**, urriaren 29koa, unibertsitate ikasketa ofizialen antolamendua ezartzen duena.
- **861/2010 Errege Dekretua**, uztailaren 2koa, 1393/2007 Errege Dekretua aldatzen duena.
- **43/2015 Errege Dekretua**, otsailaren 2koa, 1393/2007 Errege Dekretua aldatzen duena.
- **274/2017 DEKRETUA**, abenduaren 19koa, gradu, master eta doktoregoko tituluak lortzeko unibertsitate ikasketa ofizialak ezarri eta ezabatzekoa.

Ikasketen onarpena

- **1618/2011, Errege Dekretua**, azaroaren 14koa, Goi Mailako Hezkuntzaren eremuan ikasketak onartzeari buruzkoa.
- **MONDRAGON UNIBERTSITATEKO** Kontseilu Errektorearen erabakia, 2017ko ekainaren 22koa, goi mailako lanbide heziketako heziketa zikloetatik graduan sartzeari buruzkoa.

Unibertsitate-ikasketa ofizialetarako sarbidea

- **412/2014 Errege Dekretua, ekainaren 6koa**, graduko unibertsitate-ikasketa ofizialetan onartzeko prozeduren oinarritzko araudia ezartzen duena.

Europako kreditu-sistema eta kalifikazio-sistema

- **1125/2003 Errege Dekretua**, 2003ko irailaren 5koa, Europako kreditu sistema eta unibertsitate titulazioetako kalifikazio sistema ezartzen dituen.

Tituluaren gehigarri europarra

- **1044/2003 Errege Dekretua**, 2003ko abuztuaren 1ekoa, unibertsitateek tituluaren gehigarri europarra emateko prozedura ezartzen duena.
- **22/2015 Errege Dekretua**, urtarrilaren 23koa, 1393/2007 Errege Dekretuan araututako tituluaren gehigarri europarra emateko baldintzak ezartzen dituen.

Homologazioak

- **285/2004 Errege Dekretua**, 2004ko otsailaren 20koa, goi-mailako atzerriko titulu eta ikasketak homologatzeko eta baliozkotzeko baldintzak arautzen dituen.

Tituluak ematea

- **195/2016 Errege Dekretua**, maiatzaren 13koa, Doktore Tituluaren Europako Gehigarria emateko baldintzak ezartzen dituena, unibertsitate-titulu ofizialak emateari buruzko abuztuaren **5eko 1002/2010 Errege Dekretua** aldatzen duena.

Tituluen eta zigiluen kategorizazioa

- **Agindua, 2018ko uztailaren 27koa**, Hezkuntzako sailburuarena, gradu eta masterreko unibertsitate-ikasketa ofizialen kategorizazioari buruzkoa.

MONDRAGON UNIBERTSITATEKO araudiak

- Mondragon Unibertsitatearen kanpo-praktika akademikoen eta prestakuntza dualaren eta ikas-ekinezko prestakuntzaren araudia eta gida.

II. GRADUKO IRAKASKUNTZEN IZENAK, EZAUGARRIAK ETA EGITURA

GRADUKO IKASKETEN IZENAK

1393/2007 Errege Dekretuak (gerora, uztailaren 2ko 861/2010 Errege Dekretuak aldatua), unibertsitate-ikasketa ofizialen antolamendua ezartzen duenak, bere 9. artikuluan, graduko titulu ofizialen helburua eta izena ezartzen ditu.

Abuztuaren 5eko 1002/2010 Errege Dekretuaren 7. artikulua ezartzen duen bezala, Unibertsitate titulu ofizialak emateari buruz, Graduko baterako tituluen kasuan, titulu honen izena da, Mondragon Unibertsitateko Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako graduatua.

ENPRESEN ADMINISTRAZIO ETA ZUZENDARITZAKO GRADUAREN EGITURA ETA EZAUGARRIAK:

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza gradu-ikasketak:	
IKASGAI MOTAK	ECTS kopurua
Oinarrizko Prestakuntza	67
Derrigorrezkoak	65
Hautazkoak	78
Kanpoko Praktiak	0
Gradu Amaierako Lana	30
GUZTIRA	240
AIPAMENAK	
IKASKETEN IRAUPENA URTETAN	4
ATRIBUZIO PROFESIONALAK (BAI/EZ)¹	EZ
TITULU-GRADUA DA, BESTE UNIBERTSITATE NAZIONAL EDO ATZERRIKO UNIBERTSITATE BATEKIN BATERA (BAI/EZ)²	EZ
TITULUAREN EZAGUTZA ADARRA	Gizarte eta Lege Zientziak

¹ Lanbideren batean jarduteko gaitzen bada, hori arautzen duen araua adierazi beharko da.

² Hala bada, adierazi zein unibertsitatek emango duten titulua

- ECTS KREDITU SISTEMA:

Ikasketen erreformak, "ECTS kreditu" terminoa sartu du, balio-unitate berri gisa, eta horren inguruan egituratzen da ikasketa-plana. Irakasgai bakoitzak balorazio bat du kredituetan. Kreditu bat 25 orduren baliokidea da (presentzialak eta ez presentzialak). Ikasleen kredituen lorpena, unibertsitateak ezartzen duen ezagutzen, kompetentzien eta ebaluazio sistemapean egongo da.

- MODULUAK ETA MATERIAK:

Ikasketa-plan berrietan, moduluak, materialak eta ikasgaiak daude. Moduluak titulazioaren profileen definitutako kompetentziei erantzuten dieten gai multzoak dira. Materialak, ezagutza arlo bereko gai unitateak dira. Era berean, materien barruan, ikasketa emaitzak integratzen dituzten ikasgaiak daude, hauetako bakoitzak bere ikasketa emaitza propioak dituelarik. Ikasgaien programak irakaskuntza gida honetan zehazten dira.

Ikasketa-planetan jasotako irakasgaiak honela sailkatzen dira:

- OINARRIZKO PRESTAKUNTZA:

Sarrerako ezagutza irakasgaiak dira; titulua atxikita dagoen jakintza adarrari dagozkionak.

- DERRIGORREZKO ETA HAUTAZKO MATERIAK:

Unibertsitateak, ikasketa plan bakoitzean, askatasunez ezartzen dituenak dira. Lehenak, ikasleak nahitaez egin behar ditu. Bigarrenen kasuan, unibertsitateek ikasturte bakoitzean eskaintzen dituztenak dira, eta ikasleak ikasgai hauek hauta ditzake bere lehentasun edota interesen arabera.

- GRADU AMAIERAKO LANA:

Titulua lortzeko ikasleak gainditu beharko duen ikasgaia da. Ikasleak, tutore baten laguntzarekin, bere graduaren amaieran egin beharko duen lan originala da, eta titulazioko ikasketa planean aurreikusitako ezagutzak, gaitasunak eta gaitasunak eskuratu dituela frogatu beharko du.

IKASKETA PLANA (IRAKASGAIAK, SEIHILEKOAK ETA ECTS-AK)

	Lehenengo seihilekoa	ECT S		Bigarren seihilekoa	ECT S	
Lehenengo ikasturtea	Ekonomia	12	OP	Kontabilitate eta Lege kudeaketa	12	OP
	Matematika eta Estatistika	12	OP	Marketin Estrategikoa	12	OP
	XXI. mendeko enpresa	6	OP	Egonaldia enpresan I	6	H
				Erakundea eta bere funtzioak	6	H
	GUZTIRA		30		GUZTIRA	

	Lehenengo seihilekoa	ECT S		Bigarren seihilekoa	ECTS	
Bigarren ikasturtea	Finantza eta zerga kudeaketa	13	OP	Produkzio eta eragiketen kudeaketa	12	D
	Bezeroari bideratutako erakundea	10	D	Pertsonen kudeaketa	10	D
	Egonaldia enpresan II			Egonaldia enpresan II	15	H
	Lehiakortasunaren eta garapenaren ikuspegi sistemikoa			Lehiakortasunaren eta garapenaren ikuspegi sistemikoa	15	H
	GUZTIRA		23		GUZTIRA	

	Lehenengo seihilekoa	ECT S		Bigarren seihilekoa	ECTS	
Hirugarren ikasturtea	Eskuma ezkerri erakundearen kudeaketa	6	D	Negozioaren garapena	11	D
	Merkatu berriak eta nazioartekotzea	8	D	Espezializazio materia, I, II, III o IV	11	H
	Berrikuntza, produktuan, zerbitzuan eta prozesuan	8	D			
	Egonaldia enpresan III			Egonaldia enpresan III	16	H
	Enpresako jarduera berri baten garapena			Enpresako jarduera berri baten garapena	16	H
	GUZTIRA		22		GUZTIRA	

	Lehenengo seihilekoa	ECT S		Bigarren seihilekoa	ECTS	
Hirugarren mailako espezialitatearen hautazkoak				3.5 Espezializazio materia i: finantzak	11	OP
				3.6 Espezializazio materia ii: marketin digitala	11	OP
				3.7 Espezializazio materia iii: datuen analitika	11	OP
				3.8 Espezializazio materia iv: erakundeen nazioartekotzea	11	OP

				3.9 Espezializazio materia v: talentuaren kudeaketa	11	O P
	GUZTIRA			GUZTIRA	GUZTIRA A	1 1

	Lehenengo seihilekoa	ECT S		Bigarren seihilekoa	ECT S	
Laugarren ikasturtea	GAL (Ibilbide Duala)	30	D	GAL (Ibilbide Duala)	30	D
	Hautazkoak (Ibilbide Duala)	30	H	Hautazkoak (Ibilbide Duala)	30	H
	GUZTIRA	30		GUZTIRA	30	

	Lehenengo seihilekoa	ECT S		Bigarren seihilekoa	ECT S	
Laugarren mailako espezialitatearen hautazkoak	Nazioarteko egonaldiak I	6	H	Nazioarteko egonaldiak I	6	H
	Nazioarteko egonaldiak II	6	H	Nazioarteko egonaldiak II	6	H
	Nazioarteko egonaldiak III	6	H	Nazioarteko egonaldiak III	6	H
	Nazioarteko egonaldiak IV	6	H	Nazioarteko egonaldiak IV	6	H
	Praktika espezializatuak I	6	H	Praktika espezializatuak I	6	H
	Praktika espezializatuak II	6	H	Praktika espezializatuak II	6	H
	Praktika espezializatuak III	6	H	Praktika espezializatuak III	6	H
	Praktika espezializatuak IV	6	H	Praktika espezializatuak IV	6	H
	Espezializazioa joera lehiakorretan I	3	H	Espezializazioa joera lehiakorretan I	3	H
	Espezializazioa joera lehiakorretan II	3	H	Espezializazioa joera lehiakorretan II	3	H
	Euskara Teknikoa	6	H	Euskara Teknikoa	6	H
	GUZTIRA	30		GUZTIRA	30	

	Lehenengo seihilekoa	ECT S		Bigarren seihilekoa	ECT S	
Incoming Hautazkoak	Basque culture	6	H	Glocal Project	6	H
	Spanish	3	H			
	GUZTIRA	9		GUZTIRA	6	

ENPRESEN ADMINISTRAZIO ETA ZUZENDARITZAKO GRADUAREN EZAUGARRIAK

Ezagutzaren adarra: Gizarte eta Lege Zientziak

Titulua ematen duen erakundearen izaera: erabilera publikorako onartutako erakunde pribatua.

Tituludunak ikasketak amaitu dituen unibertsitate zentroaren izaera: Zentro propioa

Titulazioa lortu ondoren, hurrengo lanbidetarako egongo da prestatua ikaslea: titulazioak ez du ikaslea bereziki gaitzen lanbide jakin baterako.

Prestakuntza prozesuan zehar erabilitako hizkuntzak: Campus bakoitzeko ingurune geografikoko ikasleen hizkuntza eskakizuna kontuan hartuta, ibilbide elebiduna (gaztelania eta ingelesa) edota hiru eleduna (euskara, gaztelania eta ingelesa) zehaztuko da.

PLAZA KOPURUA

185 plaza eskainiko dira, Fakultateko hiru campusetan banatuta: (Oñati, Bidasoa, Bilbo)

Finkatutako kopuruaren barruan, honako hauek sartzen dira: Batxilergokoak, ikasketa hauek egin ditzaketen Goi Mailako Lanbide Heziketakoak, unibertsitate-ikasketak hasita dituzten ikasleak eta beste unibertsitate titulu bat dutenak.

Ez da plaza-mugarik ezartzen aurreko paragrafoan aipatutako inongo kolektiborentzat.

Iragana eta oraina, etorkizunera begira proiektatuz, eta aurreko paragrafoan azaldutako irizpideak jarraituta, plaza kopuru aurreikuspen hau proposatzen da titulazio honetarako:

KAMPUSA	X urtea	X+1 urtea	X+2 urtea	X+3 urtea
IKASLE KOPURUA	150	150	150	150

III. IZEN EMATEA, SARBIDEA ETA ONARPENA

Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultatean Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza gradua ikasi nahi duten ikasleek, dagokion inskripzioa egin beharko dute, Unibertsitateak horretarako ezarritako epeak eta moduak kontuan hartuta.

Fakultatearen webgunean, kontsultatu egin daitezke, kurtso honen inskripzio faserako ezarritako epe arruntak eta eskatutako dokumentazioa eta eskakizunak.

SARBIDEA GRADUKO IRAKASKUNTZETARA

Graduko irakaskuntzetan sartzeko, ekainaren 6ko 412/2014 Errege Dekretuak, 3. artikuluko 1. paragrafoan xedatutakoa hartuko da kontuan; bertan, modalitate ezberdinak, ezartzen baitira

ONARPENA GRADUKO IRAKASKUNTZETAN

Lehenengoa.- Ekainaren 6ko 412/2014 Errege Dekretuak berak ezartzen du, graduko unibertsitate ikasketa ofizialetan onartzeko prozeduren oinarrizko araudia; hala ere, laugarren xedapen gehigarrian, aurreikusten da, graduko unibertsitate ikasketa ofizialetan onartzeko prozedurak ezartzeko egutegiak, desberdinak izango direla sarbide modalitatearen arabera:

"Laugarren xedapen gehigarria. Ezarpen egutegia.

Errege Dekretu honetan araututako graduko unibertsitate-ikasketa ofizialetan onartzeko prozedurak, hurrengo ikasturteetatik aurrera aplikatuko dira:

a) 2017-2018 ikasturtetik aurrera, Espainiako Hezkuntza Sistemako batxiler-titulua lortu duten ikasleei, abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoak sartutako maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 37. artikulua idazketaren arabera.

b) 2014-2015 ikasturtetik aurrera, gainerako ikasleei".

Xedapen honetan ezarrita dagoenaren arabera, 2014-15etik 2016-17ra bitarteko ikasturteetan, aldi berean egongo dira, Espainiako unibertsitateetan sartzeko aurreko prozesua - Espainiako Batxilergoko ikasleentzat indarrean jarraituko duena-, eta hezkuntza-kalitatea hobetzeko, abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoaren 38. artikuluan ezarritako prozedura berria. Prozedura hori, 2014-2015 ikasturtetik aurrera aplikatuko zaie beste hezkuntza sistema batzuetatik datozen ikasleei.

Bigarrena.- Arau testuinguru berria betetzeko asmoz, Mondragon Unibertsitateko Batzorde Akademikoak, maiatzaren 14ko bileran, honako hau erabaki zuen:

AKORDIOA:

1. Mondragon Unibertsitateak ez du eskatuko unibertsitate sartzeko proba gainditzea, honako ikasle hauen sarbide eta onarpenerako: Europako Batxilergoko eta Nazioarteko Batxilergoko titulua duten ikasleak; Europar Batasuneko estatu kideetako hezkuntza sistemetatik datozen ikasleak; edo beste estatu batzuetako ikasleak, baldin eta Espainiak honi dagokion aplikatu beharreko nazioarteko akordioak sinatu baditu, elkarrekikotasun erregimenean, eta euren hezkuntza-sistemetan beren unibertsitateetara sartzeko eskatzen diren baldintza akademikoak betetzen badituzte.

Fakultateek onarpen irizpide espezifiko bat zehaztu ahal izango dute, edo onarpena oinarrituta egon daiteke, Batxilergoan edo baliokidean lortutako amaierako kalifikazioan soilik. Hartutako irizpidea tituluaren webgunean argitaratu beharko da, onarpen prozesua hasi aurretik.

2.- Ondorengo ikasleen sarbide eta onarpenerako, ez da eskatuko unibertsitate sartzeko proba egitea eta gainditzea.

a) Goi-mailako teknikariaren eta goi-mailako kirol-teknikariaren tituluak dituzten ikasleak.

b) Europar Batasuneko kide ez diren estatu sartzeko hezkuntza sistemetan lortutako batxiler titulua baliokidea den ikasketak burutu, edo titulu, diploma bat duten ikasleak, batxiler-titulua elkarrekikotasun erregimenean onartzeko nazioarteko akordiorik sinatu ez duten kasuetan.

c) Europar Batasuneko estatu kideetako hezkuntza sistemetatik datozen ikasleak, edo Espainiarekin arlo horretan aplikatzekoak diren nazioarteko akordioak sinatu dituzten beste estatu batzuetako ikasleak, dagokien hezkuntza sisteman unibertsitateetara sartzeko eskatzen diren baldintza akademikoak bete ez arren, Espainiako batxiler tituluaekin homologagarriak diren ikasketak egiaztatzen badituzte.

Kasu hauetan, Mondragon Unibertsitateko fakultateek beren onarpen irizpideak ezarriko dituzte. Irizpide horiek beti errespetatu beharko dituzte berdintasunaren,

diskriminaziorik ezaren, merezimenduaren eta gaitasunaren printzipioak; eta ikasleak baloratzeko irizpide hauetakoren bat edo batzuk erabiliko dituzte:

a) Egindako irakaskuntzetan edota modulu edo ikasgai zehatzetan lortutako azken kalifikazioa.

b) Aurreko titulazioetako curriculumen eta eskatutako unibertsitate tituluen lotura.

c) Prestakuntza akademiko edo profesional osagarria

Onarpen irizpide hori tituluaren webgunean argitaratuko da, onarpen-prozesua hasi aurretik.

3. Akordio honetan jasotakoa, 2014-15 eta 2016-17 ikasturtetako onarpen prozeduretan aplikatuko da

IKASLE BERRIAK ONARTZEKO IRIZPIDE ESPEZIFIKOA

Aurreko lerroetan deskribatutako irizpideez gain, ikasle berriek sarbide proba bat egin beharko dute, Sarbide FROGA izenekoa. Bertan, hurrengo jarduerak egongo dira:

- Elkarrizketa pertsonala
- Motibaziozko galdetegia
- Talde dinamika

Era berean, hurrengo baloratuko da:

- Batxilergoa: Selektibitatean lortutako nota eta espediente akademikoa.
- Lanbide Heziketa: Espediente akademikoaren batz besteko nota.

Ikasleen onarpen-nota honela kalkulatu da:

- Oharraren % 60 sarbide notari dagokio*
- Notaren % 5 aurreko ikasketetan egindako curriculumari edo modalitateari lotutako kalifikazioari dagokio.
- Notaren % 35 proba espezifikoetan lortutako kalifikazioari dagokio.

* Nazioarteko hezkuntza sistemetatik datozen ikasleen kasuan, erreferentziazko sarbide-nota kalkulatzeko, unibertsitate aurreko ikasketetako azken bi urteetan lortutako notak hartuko dira kontuan, UNEDen sarbide-agiria edo Hezkuntza Ministerioaren Batxilergoko homologazio agiria eduki ezean.

Proba espezifikoek honako elementu hauek dituzte:

- Profilarren eta motibazioaren testa
- Talde dinamikak
- Banakako elkarrizketa

Probek konpetentzia hauek baloratuko dituzte:

- Ekimena eta proaktibitatea
- Autokonfiantza

- Erantzukizuna
- Talde lana
- Motibazioa eta jarrera-profila

Proba espezifikoaren ondoriozko nota haztapen honen arabera kalkulatu da:

- % 60 Elkarrizketa pertsonala
- % 35 Talde dinamikak
- % 5 Motibazio profilaren testa

Sarbide probetan parte hartu ahal izateko, beharrezkoa da aurrez izena emanda egotea Idazkaritza Akademikoan, edo <https://www.mondragon.edu/inskripzioak> webgunearen bidez.

Sarbide probetako plazak mugatuak dira, eta, beraz, beharrezkoa da horietan parte hartuko dela baieztatzea, hauen garapena bermatzeko.

Proba espezifikoak egiteko datak eta lekuak Unibertsitatearen webgunean argitaratu dira. Ikasleak onartzeko, sarbide probak egiteaz eta erabakiak hartzeaz arduratzen den Fakultateko organoa, Gradua Koordinatzeko Taldea da.

IKASLE BERRIAK ONARTZEKO LEHENTASUNA:

Honako ikasle hauek izango dute Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza graduko ikasketetan sartzeko lehentasuna:

- Unibertsitatean sartzeko probak gainditu dituzten, modalitate zientifiko-teknikoan, gizarte-zientzietan eta osasun-zientzietan, LOGSEren Batxilergoko titulua duten ikasleak.
- Halaber, sartzeko lehentasuna izango dute, hurrengo familia hauetako goi mailako heziketa-ziklo bat gutxienez gainditu dutela egiaztatzen duten ikasleek:
 - Nekazaritza jarduerak
 - Administrazioa
 - Arte grafikoak (Argitalpen Diseinua eta Ekoizpena)
 - Merkataritza eta marketina
 - Komunikazioa, Irudia eta Soinua (Ikus entzunezkoen ekoizpena, Irratia eta Ikuskizunak)
 - Ostalaritza eta turismoa
 - Informatika
 - Irudi pertsonala (Irudi pertsonalerako aholkularitza)

Ikasketa ofizialetako prestakuntza akademiko horrez gain, komenigarria da ikasketa horiek hasi nahi dituzten ikasleek honako ezaugarri hauetako batzuk izatea:

- Enpresa eta bere problematika ezagutzeko interesa izatea.
- Jarrera, ekimena eta proaktibitatea.
- Lanerako gaitasuna, sormena eta sen ona.
- Pertsonekin harremanak izateko eta taldean lan egiteko gaitasuna.

Bestalde, lehentasuna emango zaie aurreko ikasturtean selektibitatea gainditu edo heziketa zikloa amaitu dutenei. Nolanahi ere, 1. deialdian unibertsitate sartzeko probak (edo hala badagokio, goi mailako heziketa ziklokoak) gainditu dituztenek, lehentasuna izango dute bigarren deialdian edo hurrengoetan gainditutakoen aurrean.

Era berean, Unibertsitateak ezarritako ohiko epean izena emandako ikasleei lehentasuna emango zaie, ezohiko epean izena emandakoen aurretik.

Behar besteko aurrerapenaz jakinaraziko zaie interesdunei, ohiko mekanismoen bidez, graduko irakaskuntzetan sartzeko eta onartzeko prozesua.

KAMPUS ALDAKETARAKO IRIZPIDEAK

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Graduan matrikulatutako ikasleek Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza fakultateko beste kampus batera aldatzea eskatu ahal izango dute, graduko ikasketa berdinekin jarraitzeko, betiere ondorengo baldintzak betetzen badira.

- Aldaketa eskatzen den kampusean plaza hutsak egon beharko dira ikasleak kampus aldaketa eskaera egiten duen ikasturtean.

Plaza hutsak bi alditan zenbatuko dira: uztailan (ikasturtean zehar sortutakoak) eta irailean (ikasleak ez matrikulatzeagatik sortutakoak).

- Eskaera egiten duen ikasleak matrikulatuta dagoen ikasturteko edo aurreko ikasturteetako modulu guztiak gaindituta izan behar ditu, eta jarrera aldetik, balorazio egokia izan behar du. Beraz, inola ere ezin izango da graduko edozein moduluren amaierako ebaluazioan semáforo gorriarekin eskaera egin.
- Eskaera egiten duen ikaslearen ohiko egoitza 50 km baino gutxiagora egon beharko du, aldaketa eskatzen den kampusetik.
- Ikasleak autonomía logisitkoa izan behar du Dualeko enpresara joateko.
- Gradu koordinazioak plaza hutsen kopurua mugatu ahal izango du, eta, era berean, ikasleari salbuetsi ahal izango dio aurreko paragrafoetan ezarritako baldintzak betetzetik, kasuistika berezien arabera.

Plaza hutsak esleitzeko irizpideak:

Plaza hutsak esleitzeko, ondorengo irizpideak hartuko dira kontuan:

- Espediente akademikoaren batz besteko nota (gainditutako ikasgaiak) %60
- Jarreraren balorazioa %40

Baldintza berdinetan, lehentasuna izango dute unibertsitatera sartzeko eskaera egiteko unean aldaketa egiteko eskatu den kanpua hautatu zuten ikasleek.

Prozedura:

1. Beste kampus batera aldatzea eskatu nahi duen ikasleak graduako koordinatzaileari zuzendutako idatzi baten bidez egin beharko du, kampus aldaketa egin aurreko ikasturteko maiatzaren 1etik 31ra bitartean.
2. Idatzia egiteko, fakultateko idazkaritzan horretarako prestatutako inprimaki normalizatua erabili beharko da.
3. Bi ebazpen-aldi ezartzen dira, betiere eskatutako kampusetan plaza hutsak badaude:
 - Uztailean, eskaera egindako ikasturtean sortutako plaza hutsekin.
 - Irailean, matrikula ez formalizatzegatik sortutako plaza hutsekin.
4. Ikasle interesdunari dagokion ebazpena posta elektronikoz jakinaraziko zaio, eta bertan jasoko da kampus aldaketa onartu edo ukatu den.

Ondorioak:

- Ikasleak graduaren koordinazioari jakinarazi beharko dio plazaren esleipena onartzen duen ala ez, eskabidearen ebazpena jaso eta hurrengo 7 egunen barruan.

Jakinarazpen hori ezarritako epean egiten ez bada, ikasleak esleitutako plazari uko egiten diola ulertuko da.

- Gratuko koordinazioak Idazkaritza Akademikoari jakinaraziko dio ikaslearen matrikulan dagozkion aldaketak egin ditzan.
- Kampusa aldatzeak ez dakar ikaslearen empresa Dual edo Dual + aldatzea.

IV. MATRIKULA ETA IRAUPENA

Matrikula alde aurreko ekintza akademiko-administratiboa da, edozein unibertsitate-erakundetan ikasketak hasteko eskatzen dena. Hori dela eta, ikasle bakar bati ere ez zaio baimenduko graduako irakaskuntzak egitea, matrikula alde aurretik formalizatu gabe, Enpresagintza Fakultateak alde aurretik jakinaraziko dituen modu eta epeetan.

Arautegi honetan, kasu bakoitzean aplikatuko diren matrikula baldintzak jasotzen dira:

LEHEN MAILA. MATRIKULA LEHEN ALDIZ:

Ikasle sartu berriek lehenengo urteko kreditu guztietan matrikulatu beharko dira, onartutakoetan edo transferitutakoetan izan ezik; gehienezko kreditu kopurua 60 ECTS izango delarik.

Hezkuntza premia berezietatik eratorritako arrazoiengatik, edo salbuespen gisa, ikaslearen egoera pertsonalagatik, eta Fakultateko dekanuari zuzendutako eskaerapean, honek, matrikularen kreditu kopurua aurreko paragrafoan adierazitakoa baino txikiagoa izatea

baimendu ahal izango du; baina hau ezin izango da inoiz izan, ondorengo matrikuletako ikasleei eskatzen zaien gutxienerako kreditu kopurua baino txikiagoa.

IRAUPEN IRIZPIDEAK

Lehen mailako ikasle berriek, lehengo urtean gaintitu beharko dute, matrikulatuta dauden kredituen% 20 gutxienez.

Ikasgai batean matrikulatutako ikasleak urte akademiko bakoitzeko deialdi bakarra egiteko eskubidea du, eta bertan jarraitzeko baldintza gaintitu ondoren, iraunkortasun-erregimena, 3. deialdiarekin mugatzen da. Ikasleak, hala badagokio, graziazko bat eskatu ahal izango du.

<https://www.mondragon.edu/eu/gradua-enpresen-administrazioa-zuzendaritzan/inskripzioa-matrikula>

ONDORENGO MATRIKULAK:

Bigarren mailako materiaren batean edo batzuetan matrikulatu ahal izateko, ikasleak, bakarrik lehenenago mailako materia bat izan dezake gaintitu gabe.

Hirugarren mailako materiaren batean edo batzuetan matrikulatu ahal izateko, ikasleak, bakarrik bigarren mailako materia bat izan dezake gaintitu gabe. Lehenenago mailako materiak gaintitu gabe baditu, ezin izango da hirugarren mailara pasatu.

Laugarren mailako materia batean edo batzuetan matrikulatu ahal izateko, ikasleak, bakarrik hirugarren mailako materia bat izan dezake gaintitu gabe. Bigarren mailako materiak gaintitu gabe baditu, ezin izango da laugarren mailara pasatu.

Ikasleak, gutxienez 30 kredituko eta gehienez 80 kredituko matrikula egin beharko du, arautegi akademiko honetan galarazten diren kasuetan izan ezik. Ikasleari, titulazioa amaitzeko geratzen zaion kreditu kopurua ezarritako gutxienerakoa baino txikiagoa bada, guztietan matrikulatu beharko da.

Ikasleak nahitaez hartu beharko ditu aukeratutako irakasgaien artean, aurreko urtean gaintitu gabe geratutako irakasgaiak.

MATRIKULA ALDATZEA ETA DEUSEZTATZEA

Matrikula formalizatzen duen ikasleak, matrikula aldatzeko edota deuseztatzeko eskatu ahal izango du (inolako ondorioz gabe utziz; egin ez balitz bezala), dagokion eskabidea ikastetxeko idazkariari helarazi ondoren. Eskabide hau, beti aurkeztu behar da, uneko ikasturteko urriaren 30a baino lehenago.

Matrikula ofizioz deuseztatuko da, hau formalizatzeko eskatutako baldintzaren bat betetzen ez denean, edo aurkeztu beharreko datuak edo agiriak faltsuak direnean.

Matrikula baliogabetu arte ordaindutako diru kopurua, ez da inola ere itzuliko; Salbuespen bakarra izango da, ikaslea, Mondragon Unibertsitateko beste gradu ikasketetara aldatzea. Kasu honetan matrikularen zenbatekoa, gradu berrira pasatuko da.

V. EBALUAZIO SISTEMA

Enpresagintza Fakultateak, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza graduan, ikasleak, ezagutzak eta trebetasunak eskuratu dituen baloratzeko erabiltzen duen ebaluazio sistema, gaitasunen ebaluazioan eta etengabeko ebaluazioan oinarritzen da. Ebaluazio horretatik lortuko da irakasgaien kalifikazioa.

MONDRAGON UNIBERTSITATEKO hezkuntza-eredua, ikasleek, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan graduatua izateko eskuratu behar dituzten gaitasunen definizioan oinarritzen da.

Konpetentziak, akzioan integratuko diren ikasitako ezagutzen, trebetasunen eta jarreraren arteko konbinazioak dira. Hauek, ikasleak hainbat ebaluazio jardueraren bidez gainditu behar dituen ikasketaren emaitzetan banakako ditugu. Beraz, ikasketen emaitzak, ikasleak ikaskuntza aldi baten amaieran, zer ezagutu, ulertu edota egiteko gai izatea espero den adierazpenak dira; eta ikasketa emaitzek, dagokion konpetentzia eskuratu dela egiaztatzeko balio dute.

Profil pertsonala, ezaugarri pertsonalen bidez deskribatzen da; ezaugarri horiek dira, hezi nahi dugun pertsonaren ezaugarriak, eta inpaktuaren arabera formulatzen dira. Inpaktuak ikasturte bakoitzean lortzen dituzten emaitzetatik harago doaz, bai alderdi pertsonalean, bai lortu behar dituzten konpetentzien eta ezagutzen alderdian. Ezaugarri pertsonalak honela banakatu dira: egresatuetan behatu beharreko *portaerak/jokabideak* (1. maila), ezaugarritik eratorritako *ikaskuntzak* (2. maila), eta horiei lotutako *esparru mentalak* (3. maila).

Mondragon Unibertsitateko Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako graduatuaren kasuan, hauek dira graduatuaren ezaugarri pertsonalak:

- KONTZIENTEA ETA KONPROMETITUA
- ANALITIKOA ETA ERRONKA KONPLEXUEI HELTZEKO PRESTATUA
- TALDEAN ETA SAREAN LAN EGITEN DU
- PERTSONEN ETA TALDEEN LIDERRA
- PROAKTIBOA ETA ALDAKETARA BIDERATUTA
- SORTZAILEA ETA ERALDATZAILEA
- BEGIRADA GLOBALA

Ezaugarri pertsonal horiei lotutako ikaskuntzaren emaitza orokor guztiak ere ebaluatuko dira, bai modulu eta ikasgaietan, bai ikasleek egindako jarduera kurrikular eta estra kurrikular guztietan.

Irakasgai guztiak etengabeko ebaluazio-sistemaren bidez ebaluatuko dira. Sistema horren bitartez, irakasleei eta ikasleei etengabeko informazioa emango zaie ikasketa prozesuan zehar. Adierazle gisa, hauek dira gradua ebaluatzeko sistema arautuko duten irizpideak:

- Ezagutzak eskuratzera bideratutako prestakuntza jarduerak, banakako azterketa nagusi bada, ahozko eta/edo idatzizko proben bidez ebaluatu ahal izango dira; proba horiek, gehienez, amaierako notaren % 40 suposatuko dute.

- Bestalde, irakasgaien konpetentzia praktikoak eskuratzeko prestakuntza- ekintzak hainbat jardueraren bidez ebaluatuko dira (lanak, kasuak, erronken ebazpena, etab.), eta, gutxienez, amaierako notaren % 60 suposatuko dute.

Beraz, ikasleek ikasten dituzten ikasgaiekin lotutako ikaskuntzaren emaitza espezifikoek zein orokorrek ikasgaietan ezarritako gutxieneko baldintzak betetzen badituzte, ikasgaia gaindituztat joko da, eta Europako kreditu-sistema eta unibertsitate-titulazioen kalifikazio-sistema ezartzen dituen 2003ko irailaren 5eko 1125/2003 Errege Dekretuan zehaztutako kalifikazio-sistemaren arabera kalifikatuko da.

Ikaskuntzaren emaitza espezifikoekin lotutako prestakuntza-jarduerak 0tik 10era kalifikatuko dira. Errekuperaziora joanez gero, gehienez 6 lortu ahal izango da aktibitatean, ikastaroaren bigarren deialdian gainditu den notan islatuta gera dadin. Norbaitek nota igo nahi badu, 6 hori ere lortuko du gehienez. Irizpide murriztaileagoa duten moduluek bere irizpidea aplikatzen jarrai dezakete (adibidez, errekeruperazioaren notarik altuena 5 izatea). Gehienez ere 6ko nota aplikatuko da bai jardueran, bai moduluen amaierako notan.

myGADEko ebaluazio-sistemak, jarraiaizateaz gain, 360 graduko ebaluazioa ezartzen du. Hala, moduluen amaierako nota kalkulatzeko, ikasleak egindako autoebaluazioa eta taldekideek haren gainean egiten duten koebaluazioa hartuko dira kontuan. Ikasleak autoebaluaziora eta/edo koebaluaziora bideratutako galdetegiak garaiz eta behar bezala betetzen ez baditu, zero bat izango du alderdi horietan.

Aldiz, ikaskuntzaren emaitza orokorrekin lotutako prestakuntza jarduerak semaforoaren bidezko balorazioa izango dute (semaforoa, lau koloretakoa izango da: urdina, emaitza bikainetarako; berdea, emaitza oso onetarako; horia, tarteko emaitzetarako; eta gorriak, ikaskuntzaren emaitza lortu ez dela adierazteko). Balorazio kualitatibo hori ikasleekin partekatzen da lauhilekoan zehar, ikasgaietan izandako laguntzaren, aholkularitzaren, banakako jarraipenaren eta prestakuntza-feedbackaren bidez; beraz, ikaskuntzaren emaitza espezifikoek kasuan bezala, ebaluazio jarraia da.

Semaforoek ikasgaiaren amaierako notan duten eragina ikasleekin partekatuko da ikasturte bakoitzaren hasieran.

JARDUERAK BERRIKUSTEKO/ERREKLAMATZEKO ESKUBIDEA

Irakasle bakoitzak jarduera bakoitzaren behin betiko notak ohiko bideetatik jakinaraziko ditu, eta kalifikazio horiek noten sisteman sartuko ditu, ikasketen emaitzen eta konpetentzien balorazio metatuak erakusteko.

Irakasle bakoitzak proba horiek berrikusteko epeak eta bideak ezagutaraziko ditu. Arrazoi akademikoengatik edo behar bezala justifikatutako arrazoi pertsonal larriengatik ikasleak ezin badu berrikuspenera joan zehaztutako epean, beste data bat adostu ahal izango du irakaslearekin. Azterketen/proben/jardueren berrikuspenera soilik eska daiteke horien emaitzak argitaratu eta hurrengo 2 asteetan.

Ikaslea, lortutako azken kalifikazioarekin ados ez badago, inpugnatzeko ahalbidea izango du. Ikasleek gehienez 3 aldiz erabili ahal izango dute bide hori gradu osoan.

Agiri bidez jasota geratuko den frogen kalifikazioaren aurkako errekurtsioak, arau hauek jarraituko ditu

- Ebaluazio jarduera bati buruzko kalifikazio bat berrikusi ondoren, ikaslea ez badago ados kalifikazio horrekin, erreklamazioa aurkeztu ahal izango dio titulazioaren arduradunari, idatziz eta arrazoituta. (II. ERANSKINA).
- Erreklamazioa 3 asteguneko epean aurkeztu beharko da, proba berrikusteko azken egunetik aurrera.
- Erreklamazioa onartu ondoren, titulu taldeak, arloko arduradunarekin koordinatuta, erreklamazio epaimahai bat izendatuko du, dagokion arloko bi irakasleak osatua. Epaimahai horretatik kanpo geratuko dira ikaslea ebaluatu zutenak.
- Behin betiko ebazpena eman aurretik (betiere jardueraren kalifikazioa berrikusi ondoren), epaimahaiak, kalifikazioa aurkaratzen ari den irakasleari entzungo dio.
Era berean, eskubidea dauka ikasleari eskatzeko, beharrezkoak ikusten dituen azalpenak.
- Epaimahaiak, bere erabakia akta batean jasoko du, eta interesdunei jakinarazi beharko die, erreklamazioa onartu eta hamar asteguneko epean.

Ikaslea aurkaratutako kalifikazioaren xede den proba berrikustera joan ezean, ez du eskubide hori izango.

EBALUAZIO-PROBEN GRABAKETA

Ebaluazio-proba grabatu behar den kasuetan, OBS grabazio-jarraibideak dokumentuko jarraibideak bete beharko dira.

Ikasleak arduratuko dira grabazio-programak behar bezala funtzionatzen duela eta ordenagailuak proba grabatzeko adinako biltegiratzea duela egiaztatzeaz.

Ebaluazio-proba amaitutakoan, ikasleek ondorengo aurkeztu beharko dute:

- Proba amaitu eta 15 minutura grabatutako bideoaren has kodea.
- Azterketaren grabazioaren bideoa hurrengo 24 orduetan.

Bideoaren kalitateak eta egoera nahikoa izan behar du azterketan egindako ekintza guztiak modu irakurgarrian ikusi ahal izateko. Nahitaezkoa da grabazioaren amaiera-ordua azterketa ebazteko dokumentuaren igoera-orduaren berdina edo geroagokoa izatea.

Bideoa ezabatu ahal izateko, graduko koordinazioak baimena eman beharko du.

Irakasleek grabazioa ez badute OBS grabazio-jarraibideak dokumentuan eskatutako betekizunekin, eta ikasleek ez badituzte bete ebaluazio-proba entregatzeko aurrez adierazitako baldintza, graduko koordinazioak aztertuko du eta ondorioei buruzko erabakia hartzeko ahalmena izango du.

Irakasleek ebaluazio-proban Araudi Akademikoan VIII.atalean tipifikatutako jokabide desegokiak identifikatzen badituzte, araudian bertan, EBALUAZIO PROBAK EDO EBALUAZIO JARDUERAK, IRUZURREZ EGITEAREN ONDORIOAK atalean deskribatutako ondorioak aplikatuko dira.

VI. EZOHIKO DEIALDIAK

IRAILEKO GRADU AMAIERAKO EZOHIKO DEIALDIA BALDINTZAK

Iraileko gradu amaierako ezohiko deialdira aurkezteko aukera izango dute, baldintza hauek betetzen dituzten ikasleek:

1. Gradua gainditzeko gainditu gabe dauden irakasgai guztietan matrikulatuta egotea.
2. Aparteko deialdia eskatzeko materia kopurua, ezingo da materia batetik gorakoa izan, gradu amaierako lanari edo curriculumetik kanpoko praktikei lotutako gaiak alde batera utzita.

ESKAERAK

Deialdi horretara aurkezteko eskabideak matrikularekin batera aurkeztu beharko dira, Fakultateko Idazkaritzan eskuragarri dagoen inprimaki normalizatua erabiliz.

Eskaerak egiteko epea uztailako azken astegunean amaituko da.

DATAK

Ikasturte akademiko bakoitzeko irailean zehar, materia bakoitzerako azterketen datak argitaratuko dira.

ONDORIOAK

- Gaitutako materietan, lortutako kalifikazioak iraileko deialdian sartuko dira ikaslearen espedientean.
- Gaitutako gabeko materietan, ikasleak materietarako programatutako jarduerekin jarraitu beharko du, eta horien etengabeko ebaluazioan eta gainditzeko ezarritako baldintzetan sartuko da.

VII. GRAZIAKO DEIALDIA

Ikasleak, materiaren bat gainditu gabe utziz gero, eta honen 3 deialdiak agortu baditu, GRAZIAKO deialdi bat eskatu ahal izango du, tituluaren koordinazioari zuzendutako idazki baten bidez, Fakultateko Idazkaritzan horretarako prestatutako inprimaki normalizatua erabiliz.

Kasu hauetan, eta tituluaren koordinatzailearen aldeko txostenarekin, graziako deialdia abenduan burutuko da.

Titulua lortzeko, graziako 2 deialdi daude guztira: Bat, graduako lehen bi mailetarako, eta beste bat gainerakoetarako.

Materia bakoitzerako programatutako jarduerak, nahitaez bete beharko dira; hasieratik, graziako deialdiaren egunera arte.

Prozedura eta ondorioak:

1. Graziako deialdia eskatu nahi duen ikasleak, idatzi bat bidali beharko dio titulazioaren koordinatzaileari, azken deialdia agortu den irakasgaiaren hurrengo irailaren azken astegunaren aurretik.
2. Eskatzaileari Graziaz Deialdia ematen bazaio, irakasgai horretan bakarrik matrikulatu beharko da, eta honi dagokion matrikularen zenbatekoa ordaindu beharko du, irakasgai hau gainditu arte.
3. Graziako deialdiari dagokion azterketa, deialdi berezi batean egingo da, abenduan, eta hiru kidek osatuko epaimahai batek epaituko du. Epaimahaien osaketa, azaroaren 15a baino lehen jakinaraziko da.
4. Azterketa hau gainditu ezean, ikasleak automatikoki utzi beharko du Fakultatea, eta baja izango da. Aldiz, azterketa gaindituko balu, ikasketekin jarraituko luke, dagokion matrikula arrunta egin ondoren.

Prozedura eta ondorioak:

1. Graziako deialdia eskatu nahi duen ikasleak, idatzi bat bidali beharko dio titulazioaren koordinatzaileari, azken deialdia agortu den irakasgaiaren hurrengo irailaren azken astegunaren aurretik.
2. Eskatzaileari Graziaz Deialdia ematen bazaio, irakasgai horretan bakarrik matrikulatu beharko da, eta honi dagokion matrikularen zenbatekoa ordaindu beharko du, irakasgai hau gainditu arte.
3. Graziako deialdiari dagokion azterketa, deialdi berezi batean egingo da, abenduan, eta hiru kidek osatuko epaimahai batek epaituko du. Epaimahaien osaketa, azaroaren 15a baino lehen jakinaraziko da.
4. Azterketa hau gainditu ezean, ikasleak automatikoki utzi beharko du Fakultatea, eta baja izango da. Aldiz, azterketa gaindituko balu, ikasketekin jarraituko luke, dagokion matrikula arrunta egin ondoren.

VIII. INTEGRITATE AKADEMIKORAKO ARAUAK

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza gradu ikasketen helburu nagusia da, ikasle tituludunak, enpresa kudeaketan adituak izatea eta lanbide jardunean nabarmentzea; beti, zintzotasuna eta integritate pertsonala zainduz. Horregatik, prestakuntza prozesutik bertatik saihestu behar da profesional zintzo baten jokabide desegokia.

Unibertsitateko titulazio honetan inplikaturako ikasle eta irakasle guztiei, desegokitzat jotzen diren jokabideak eta kasu hauetan jarduteko prozedurak ezagutarazteko, honako hau ezarri da:

Honako ekintza hauek, zerranda luze eta zehatza osatu gabe, ikasle zintzo baten jokabide desegokitzat hartzen dira:

1. Ebaluazio probetan ikaslearen identitatea ordezkatzea.
2. Besteren lanak, norberarenak izango balira bezala kontsideratu.
3. Beste ikasle batzuen lan edo azterketetatik kopiazea edo kopiatzen uztea.
4. Probetan, esplizituki baimendu gabeko apunteak, materialak edo bitartekoak erabiltzea.
5. Aurrez aurreko probak egitean, hirugarren pertsonekin komunikatzeko edozein bide erabiltzea, baimenik gabe; irakasle ikuskatzaileak izan ezik.

Ebaluazio probetan zein ebaluazio jardueretan iruzur egitea, zigortu egingo da, jokabide desegoki horiek zuzentzeko.

EBALUAZIO PROBAK EDO EBALUAZIO JARDUERAK, IRUZURREZ EGITEAREN ONDORIOAK:

1. Azterketa baten kopia edo edozein ebaluazio jardueraren plagio partziala edo osoa detektatzen bada, automatikoki galduko da ikasgaiaren ebaluatua izateko eskubidea, uneko aldi akademikoan.
2. Iruzurrezko baliabideak erabiltzen direla jakiten denean, eta behin eta berriz erabiltzen direla susmatzen denean, irakasleak, ikasleak edozein ikasgaitan aurkeztutako aurretiazko lanak berrikusi ahal izango ditu, eta hauen kalifikazioak aldatu ahal izango ditu, iruzur ebidentziak ikusten badira.
3. Jokabide desegokien ezagutza dagoenean, kalifikazioen aldaketa, uneko aldi akademikoan aplikatu ahal izango da; betiere, irakasgaiaren amaierako kalifikazioak behin betiko bihurtu aurretik.
4. Graduan zehar, ikasleak behin eta berriz (ikasturte berean edo beste batean) iruzurrezko jarduerekin jarraitzen dituela, detektatzen bada, 1. puntuaren xedatutakoaz gain, jokabide hau hutsegite larritzat joko da, eta Zuzendaritza Akademikoak zehaztu beharreko diziiplina gehigarriak ere, egongo dira.

IX. KREDITUEN ONARPENA

ECTS kredituen onarpenei dagokienez, 1393/2007 Errege Dekretuan aprobaturik zena jarraituko da.

ECTS-EN ONARPENA:

Kredituen onarpena da, ikasleak ikasketa ofizial batzuetan lortutako kredituak, bai Mondragon Unibertsitatean edo beste unibertsitate batean, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza graduako irakaskuntzetan konputatzen direnean, titulu ofizial bat lortzeko.

Fakultate honek, beste unibertsitate batzuetan edo beste titulu batzuetan egindako irakaskuntzen kredituak onartu ahal izango ditu, ikasleak ikasitako ikasgaiei lotutako kompetentzien zein ezagutzen, eta ikasketa planean aurreikusitakoaren artean, egokitasuna dagoenean; edo zeharkako kasuetan, betiere ECTS kredituetako irakastorduek antzekoak direnean; gradu amaierako lanari dagozkion kredituak izan ezik.

Hona hemen ECTSen jatorri posibleak:

1. Aldez aurretik egin duten **unibertsitate prestakuntza akademikoa** (Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 34.1 artikuluan adierazten dena), bai Mondragon Unibertsitatean, bai beste unibertsitate batzuetan, eta hasitako ikasketak osorik edo zati batean egin diren alde batera utzita.

Onarpena posible izango da, ikasleak ikasitako ikasgaiekin lotutako kompetentzien zein ezagutzaren, eta graduan aurreikusitakoaren artean, egokitasuna dagoenean; honetaz gain, ECTSen edukiak eta irakastorduek antzekoak izan behar dira (irizpide orientagarria% 80 bi kasuetan), Gradu Amaierako Lanaren kasuan izan ezik.

Nolanahi ere, gutxienerako onarpen unitatea, materia izango da.

Onartutako kredituak zenbakizko kalifikazioekin kalifikatuko dira, irailaren 5eko 1125/2003 Errege Dekretuaren 5. artikuluan xedatutakoaren arabera.

2. Aldez aurretik beste **titulu propio** batzuetan eskuratutako prestakuntza, dela Mondragon Unibertsitatean, dela beste unibertsitate batzuetan, eta hasitako ikasketak osorik edo zati batean egin diren alde batera utzita.

ONARTUTAKO GUTXIENeko ECTS KOPURUA	ONARTUTAKO GEHIENeko ECTS KOPURUA
3	36

3. Titulazio ofizialetan aldez aurretik eskuratutako **unibertsitate kanpoko goimailako prestakuntza**, 1618/2001 Errege Dekretuan xedatutakoari jarraikiz. Onartutako kredituak zenbakizko kalifikazioekin kalifikatuko dira, irailaren 5eko 1125/2003 Errege Dekretuaren 5. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Kasu honetan, honako hauek dira onartu daitezkeen gutxienerako eta gehieneko ECTS kopuruak:

ONARTUTAKO GUTXIENeko ECTS KOPURUA	ONARTUTAKO GEHIENeko ECTS KOPURUA
3	36

4. MONDRAGON UNIBERTSITATEAK, onarpen hau kontenplazten duten beste unibertsitate batzuekin sinatutako hitzarmenetan jasotako nazioko edo nazioarteko mugikortasuna.

5. Egiatzatuko **esperientzia profesionala.**

Kasu honetan, baldintza hauek bete beharko dira:

a) Ikasleak, lan esperientzia agiri bidez egiatzatu beharko du, eta honako hauek aurkeztu beharko ditu:

- Lan bizitza eguneratuaren laburpena.
- Zuzendariaren edo arduradun gorenaren ziurtagiria, non eskatzailearen lanbide eta lan esperientzia egiatzatuko den. Bertan, gutxienez, jasoko dira: lanbide esperientziaren iraupena, eskatzailea aplikatu den lan esparrua eta lan jardunaren ezaugarriak .
- Eskatzaileak berak egindako adierazpena. Bertan, azaldu beharko dira: garatutako lanbide jarduera, jarduera horren bidez eskuratutako lanbide kompetentziak, eskuratutako ezagutzak eta onarpena zein irakasgairako edo irakasgaietarako eskatzen den.

b) Gutxieneko onarpen unitatea, materia eta honi lotutako kompetentziak izango dira, eta ezingo da onartu materia bat osatzen ez duten ECTS unitaterik.

c) Erabiliko diren irizpideak kredituak onartzeko izandako lanbide esperientzia egiatzatuagatik, hurrengoak dira:

- Unibertsitate-titulu ofizial bat izatea (espainiarra edo atzerrikoa)
- Esperientzia profesionaleko denbora
- Garatutako lanbide aktibitatean jarduteko modua; osoa (garatutako lanbide-jardueraren %100) edo partziala (garatutako lanbide jardueraren% 50).

d) Idatzizko eskaera osatzeko, elkarrizketa bat egingo zaio interesdunari. Elkarrizketa horretan, materiako (edo materietako) irakasleak (edo irakasleek) egiatzatuko du ikasleak onarpenaren xede diren ezagutzak eta kompetentziak eskuratu dituela.

C) atalean jasotako hiru irizpideen konbinaziotik, hurrengo taula sortu da, lanbide esperientzian behar den denbora jasotzen duena:

1. EGOERA- KREDITUEN ONARPENA LANBIDE ESPERIENTZIAGATIK. (UNIBERTSITATE TITULU OFIZIALIK GABEKO ESKATZAILEAK)

ONARPEN UNITATEAK	Dedikazio osoa (garatutako lanbide jardueraren% 100)	Dedikazio partziala (garatutako lanbide jardueraren% 50)
Gutxieneko unitatea: 6 ECTS (eta lotutako kompetentziak)	16 hilabete	32 hilabete
Gehieneko unitatea: 14 ECTS (eta lotutako kompetentziak)	37 hilabete	75 hilabete

Enpresako praktikei dagozkien kredituak onartu ahal izango dira, baldin eta graduako konpetentziak eskuratu direla egiaztatzen bada; nahiz eta konpetentzia horiek, materia jakin batzuei ezin izan esleitu, edo lanbide esperientzia nahikotzat jo ez arren, dagokion irakasgaiaren ECTS guztiak onartzeko.

ONARPEN UNITATEAK	Dedikazio osoa (garatutako lanbide jardueraren% 100)	Dedikazio partziala (garatutako lanbide jardueraren% 50)
Gutxieneko unitatea: 3 ECTS	12 hilabete	24 hilabete
0,5 ECTS gehigarri bakoitzagatik	2 hilabete	4 hilabete
Gehieneko unitatea: 14 ECTS (eta lotutako konpetentziak)	96 hilabete	192 hilabete

1) eta 4) paragrafoetako kasuetan onartutako kredituak ez dira kontuan hartuko espedientearen baremaziorako.

MURRIZKETAK KREDITUEN ONARPENEAN:

Hurrengo murriztapenak, jatorria edozein izanda ere, kredituen onarpena eska daitezkeen kasu guztietan aplikatu ahalko dira, (kontrakoa zehaztu ezean):

- Gradu amaierako lana ezin izango da inola ere onartu.
- Lanbide eta lan esperientziatik eta beste titulu batzuk lortzeko unibertsitate irakaskuntzetatik lor daitezkeen kredituak, gehienez, 36 izango dira, guztira.
- ECTSen jatorria, jarraian definitutakoetako bat bada, onartutako kredituen gutxieneko kopurua, aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren erabakiko da. Aztertuko da, ezarritako baldintzak gaindituta dauden, (irakasgai bati lotutako edukiak eta konpetentziak):
 - Unibertsitateaz kanpoko goi-mailako prestakuntza
 - Unibertsitateko prestakuntza akademikoa
 - Egiaztatutako esperientzia profesionala
- Eskatutako baldintzak gainditu ezena, ez da inongo krediturik onartuko.

KREDITUEN ONARPENERAKO JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA

Eskatzen duten ikasleei, kredituak onartzeko prozedura honako hau izango da:

Ikasle batek unibertsitateko ikasketa ofizialak edo goi mailako heziketa zikloak hasi edota egin baditu, gure fakultatean matrikulatu den graduako ikasgaiak baliozkotzeak edo onartzeko eska dezake.

Horretarako, ikasle bakoitzak, salbuespenik gabe, eskabidea egin behar du, **dokumentazio** hau prestatuz:

- Baliozkotzeko eskabide orria: bete eta sinatu.
- Egindako ikasketen espediente akademiko ofiziala
- Baliozkotzea nahi diren irakasgaien programak

Dokumentazio hori guztia dagokion Idazkaritza Akademikoan (Oñati, Irun-Bidasoa) entregatu beharko da, (edo bidali) kudeatua izateko.

BALIOZKOTZEAK/ONARPENAK KUDEATZEKO URRATSAK:

1. Dokumentazio hau jasotakoan, Idazkaritza Akademikoak, Kredituen Ebazpen Orriarekin batera, gradu bakoitzeko baliozkotze arduradunei bidaliko die, balora dezaten.
2. Eskabidea aztertu ondoren, baliozkotze arduradunek kredituen ebazpen orria osatu eta sinatuko dute. Hau egin eta gero, Idazkaritza Akademikoan entregatuko dute, eskatutako baliozkotzeak onartu edo ukatu diren jakinaraziz.
3. Idazkaritza Akademikoak banaka jakinaraziko dio ikasle bakoitzari, txosten ofizial baten bidez, baliozkotzeen ebazpena (onartuak edo ukatuak izan); eta kudeatuko du ere, ikaslearen matrikula maila akademikoan zein administratiboan (ikaslearen amaierako matrikula eta hileko kuoten zenbatekoa).
4. Idazkaritza akademikoak ikasturteko arduradunei jakinaraziko die baliozkotze eskaeren ebazpena, ikasleen egoeraren berri izan dezaten.

Baliozkotzeak eskatzeko **epea URRIAREN 30EAN** amaituko da. Gerora egiten den edozein baliozkotze eskaera ez da tramitatuko, eta ikasleak aukera galduko du baliozkotze hori eskatzeko.

Ikaslea matrikulatuta dagoen ikasturteari edo ikasturteei dagozkien materien baliozkotzeak baino ezin izango dira eskatu; hau da, ikasturte bakoitzean dagozkion onarpenak eskatu behar dira.

KREDITUEN TRANSFERENTZIA

Kredituen transferentzia bezala ulertzen da, ikasleak, bai Mondragon Unibertsitatean zein beste batean, aurretik burututako ikasketa ofizialetan lortutako kreditu guztiak, titulu ofizialik lortu ez arren, honek jarraitutako ikasketen dokumentu akademiko ofizial egiaztatzaileetan sartzea.

Espedientea lekualdatzetik datozen ikasleen kasuan, ofizioz jardungo da, beren espedientean sartzeko, titulu ofizial bat lortzera eraman ez duten eta baliozkotu ez diren beste titulazio batzuetan gainditutako kredituak, eta ez da beharrezkoa izango inolako eskaerarik aurkeztea.

X. ESPEDIENTE AKADEMIKOA

Ikaslearen espediente akademikoan, ikasleak ikasketa ofizialetan, Mondragon Unibertsitatean edo beste unibertsitate batean titulua eskuratzeko lortu dituen kreditu guztiak jasoko dira; hau da, transferituak, onartuak edo gaindituak; eta kasu bakoitzean dagokiona adieraziko da. Onartutako kredituak direnean, honako informazio hau jasoko da jatorrizko irakaskuntzei buruz: Unibertsitatea (k), irakaskuntza ofizialak eta irakaskuntza horiek zein adarretakoak diren; lortutako materiak edota irakasgaiak; kreditu kopurua, eta ateratako kalifikazioa.

XI. TITULUAREN GEHIGARRI EUROPARRA

Ikasleei emandako Tituluaren Gehigarri Europarrean, ikasleak, ikasketa ofizialetan, Mondragon Unibertsitatean edo beste unibertsitate batean, dagokion titulua eskuratzeko lortu dituen

kreditu guztiak agertuko dira, (transferituak, onartuak edo gaindituak), ikasketa espedienterako zehaztutako espezifikazio berberekin.

XII. KALITATEA BERMATZEKO SISTEMA

Kalitatea Bermatzeko Sistemari buruzko informazioa esteka honetako Kalitatea atalean dago: <https://www.mondragon.edu/eu/gradua-enpresen-administrazioa-zuzendaritza/ebaluazio-programa-txostenak>
Ikerketa hori, Enpresagintza Fakultateko KBBS-ri dagokio. (kalitatearen barne bermerako sistema). Honen ebaluaketa egin ondoren, UNIBASQen adostasuna lortu da, 2016ko martxoaren 4an Unibertsitateko Prestakuntzaren Kalitatearen Barne Ziurtagirirako Audit Programaren indarreko dokumentazioan ezarritako arau eta jarraibideekin.

XIII. ESPARRUA ETA KONPETENTZIAK

MONDRAGON UNIBERTSITATEKO Batzorde Akademikoak egokitzat jotzen dituen arau guztiak diktatu ahal izango ditu araudi honetan jasotzen ez diren gaietarako.

MONDRAGON UNIBERTSITATEKO Batzorde Akademikoak, arautegi honetan xedatutakoaren babesean, irakaskuntzako jarduera akademikoa graduko unibertsitate ikasketetan normaltasunez garatzen dela zainduko du, eta egokitzat jotzen dituen hobekuntza proposamenak egingo ditu, hezkuntza-komunitatea, eta Mondragon Unibertsitateko tituludunak hartzen dituzten enpresak eta erakundeak, hobeto gogobetetzeko.

Araudi honetan xedatzen ez diren kasuetan, MONDRAGON UNIBERTSITATEKO errektoreorde akademikoak erabakiko du, interesdunak eskatu eta kasuan gertatzen diren zirkunstantziak aztertu ondoren.

Araudi honen ondorengo aldaketak MONDRAGON UNIBERTSITATEKO Batzorde Akademikoaren kideen eskumen eksklusiboa dira, eta aldaketak bertako edozein kidek proposa ditzake.

XIV. BEKAK ETA IKASKETARAKO LAGUNTZAK

Informazio zabala, esteka honetan eskuragarri:

<https://www.mondragon.edu/eu/gradua-enpresen-administrazioa-zuzendaritza>

XV. BEKABIDE

Unibertsitateak, unibertsitatearen laguntza publikoak eta berezkoak batzen dituen Bekabide izeneko programa berezi bat dauka. Ordainketak ikaslearen familiaren aukera ekonomikoetara egokituko dira.

XVI. ESKOLA ASEGURUA

Asegurua 1953ko uztailaren 17ko Legearen bidez sortu zen (abuztuaren 18ko BOE), ikasleen aldeko gizarte aurreikuspena bermatzeko; bere babes eta laguntzarako; egoera txarrei, ustekabekoei, edo aurreikus daitezkeen zirkunstantzietan, aurre egin ahal izateko.

Eskola Asegurua nahitaez ordaindu behar da, eta matrikula betetzean ordaintzen da.

Aseguru horren muga 28 urteko adina da; beraz, ikastetxeak derrigorrezko aseguru bat egingo die adin horretatik gorako ikasleei, gutxienez, Eskola Aseguruaren estaldura izango duena.

ERANSKINAK

I. eranskina. TITULUKO TALDEARI ESKATZEKO INPRIMAKIAK

Idazkaritza akademikoan eskatu behar diren inprimakiak:

- IRAILEKO GRADU AMAIERAKO EZOHIKO DEIALDIA
- FROGA BERRIKUSTEA/AURKARATZEA
- GRAZIAZKO DEIALDIA
- BALIOZKOTZE ESKAERA ORRIA

IRAILEKO GRADU AMAIERAKO EZ OHIKO DEIALDIA



Mondragon Enpresagintza Fakultatea
Unibertsitatea Facultad de Empresariales

Abizenak
Apellidos: _____

Izena:
Nombre: _____

NAN/DNI: _____

Honen bitartez jakinarazten dizut,
Le comunico,

Gradua amaitzeko iraileko deialdian materia hauetara aurkezteko asmoa dudala:
mi deseo de presentarme en la convocatoria **Fin de Grado de Septiembre** a la materia siguiente:

_____ kurtsoa: _____

Oñatin / Bilbo / Irun, 20__ko, _____ k _____,

Oñatin / Bilbo / Irun, a _____ de _____ de 20__

sinadura/firma

ENPRESAGINTZA FAKULTATEko DEKANO JAUN TXIT ARGIA –
MONDRAGON UNIBERTSITATEA ILMO.SR. DECANO DE LA FACULTAD DE
EMPRESARIALES DE MONDRAGON UNIBERTSITATEA

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatzen dena betez, zure datu pertsonalak fitxategi automatizatuetan sartuta daudela jakinarazten dizugu, eta horren helburua ikaslearen eta ikastetxearen arteko harremana osatzea dela. Helburu horiek betetzeko beharrezkoak diren prozedura administratiboetan bakarrik erabiliko dira aipatutako datuak. Fitxategi horien erantzulea kooperatiba bera da eta, horri dagokionez, hala nahi baduzu, aipatu Legean aurreikusitako sarbide, zuzenketa, ezabatze eta oposizio eskubideak balia ditzakezu. Hori egin nahi baduzu, Giza Baliabideen Sailera jo behar duzu, eta NAN edo nortasuna egiaztatzeko beste agiriren bat aurkeztu.

En cumplimiento de lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, le informamos que sus datos personales están incorporados en ficheros automatizados cuya finalidad es la de cumplimentar la relación entre alumno/a y centro educativo. Estos datos, únicamente se utilizarán en los términos previstos en los procedimientos administrativos que sean necesarios para su realización. El responsable de estos ficheros es la propia cooperativa ante la cual, si usted lo desea, puede ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición previstos en dicha Ley, dirigiéndose para ello al Departamento de Recursos Humanos donde deberá presentar su DNI o documento acreditativo.

AZTERKETAREN BIGARREN BERRIKUSKETAREN-ERREKLAMAZIOAREN ORRI
ESKAERA

SOLICITUD DE SEGUNDA REVISIÓN-RECLAMACIÓN DE EXAMEN



Mondragon
Unibertsitatea

Enpresagintza Fakultatea
Facultad de Empresariales

IZEN ABIZENAK:
NOMBRE Y APELLIDOS:

NAN / DNI:

Idal Zbka./ Nº de Idal:

Titulazioa (Gradoa/Masterra):

Titulación (Grado/Máster):

Ikasgaia /Asignatura:

Curso/ Kurtsoa:

Campus-a:

Ikasturte Akademikoa: 20-- / 20—

Curso académico: 20-- / 20--

Jakinarazpenak bidaltzeko helbidea (kalea, zbkia. herria, P.K., probintzia) / Domicilio a efectos de notificaciones (calle, nº, localidad, C.P., provincia:

Email-a:

Telefono-a:

AZALPENA / EXPONE:

Ikasgaia den _____-ren azterketaren
berrikusketa 20-- /---/--- egunean egin nuen _____ irakaslearekin,
_____ nota lortuz eta, nota honekin ados ez nagoela, jarraian adierazten ditudan arrazoiengatik /
Que el día -- /-- /20--, realicé la revisión del examen de la asignatura
_____, con el/la profesor/a
_____, obteniendo la calificación de _____, no
estando de acuerdo con la misma por los motivos que a continuación detallo:

ESKATZEN DUT / SOLICITO:

Azterketaren bigarren berrikusketa egitea, dagokion arauari jarraituz.

Que se proceda a una segunda revisión del examen, siguiendo la normativa establecida.

En _____-n 20-- _____-ren ____-a
En _____, a ____ de _____ de 20__

(Ikaslearen sinadura) / (Firma del/la estudiante)

Mondragon Unibertsitatearen Enpresagintza Fakultatearen dagokion Titulazioaren Koordinatzaile Jaun/Andrea.
Sr./Sra. Coordinador/a de la Titulación correspondiente la Facultad de Empresariales de Mondragon Unibertsitatea

Oharra: Arrazoirik edo eta sinadurarik gabe eskaerak ez dira onartuak izango./ **Nota:** Las solicitudes carentes de los motivos y/o de la firma no serán admitidas.

GRAZIAZKO DEIALDIA

_____ Jaun/Anderea,
ondorengo NAN zenbakiarekin _____, helbidea
_____ zkia _____ herria _____ P.K

HONAKO HAU AZALTZEN DU:

3. deialdia bukatu duela hurrengo irakasgaien
_____ Kurtsoa _____ Enpresen
Administrazioan eta Zuzendaritzan Gradua, _____ kanpusean.

ONDOKO HAU ESKATZEN DU

Graziazgo deialdia eman dakiola.

_____ -n, 20 ____ ko _____ aren _____ (e)an

(Sinadura)

Eskabide hau Administrazioan eta Zuzendaritzan Graduaren Koordinatzaileari
zuzentzen da

eta oposizio eskubideak balia ditzakezu. Hori egin nahi baduzu, Giza Baliabideen Sailera jo behar duzu, eta NAN edo nortasuna egiaztatzeko beste agiriren bat aurkeztu.

BALIOZKOTZEAK ESKATZEKO ORRIA

Ikasketa Gradua: _____

Ikasturtea: _____

Izena eta deiturak:

NAN:

AZALTZEN DU:

Honako irakasgai hauek gaindituta dituela:

_____	_____ ikasturtea
_____	_____ ikasturtea
_____	_____ ikasturtea
_____	_____ ikasturtea
_____	_____ ikasturtea
_____	_____ ikasturtea

_____ **Unibertsitateko**
_____ **Fakultatean.**

ESKATZEN DU:

Baliozkotzearen formalizazioa. Hori dela eta, eskaera honekin batera, hitzarmen akademikoa eta dagozkion programak eransten dira.

Oñatin, 20 _____ (e) ko _____ aren _____ (e) (a) n

(Sinadura)

**MONDRAGON UNIBERTSITATEA Enpresagintzako Fakultateko Dekano Jaunari zuzendua-
OÑATI**

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatzen dena betez, zure datu pertsonalak fitxategi automatizatuetan sartuta daudela jakinarazten dizugu, eta horren helburua ikaslearen eta ikastetxearen arteko harremana osatzea dela. Helburu horiek betetzeko beharrezkoak diren prozedura administratiboetan bakarrik erabiliko dira aipatutako datuak. Fitxategi horien erantzulea kooperatiba bera da eta, horri dagokionez, hala nahi baduzu, aipatu Legean aurreikusitako sarbide, zuzenketa, ezabatze eta oposizio eskubideak baliu ditzakezu. Hori egin nahi baduzu, Giza Baliabideen Sailera jo behar duzu, eta NAN edo nortasuna egiaztatzeko beste agiriren bat aurkeztu.